



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

---

# DEBAGOIENeko GARAPEN AGENTZIA

## 2014ko AURREKONTUAK

### AZALPENA

#### **GARAPEN AGENTZIA OROKORRAK**

##### Gastuak

Atal honetan Garapen Agentziaren eta Enpresa Ekinenatarako Zentroaren kudeaketa eta mantenuaren gastu orokorrak jasotzen dira; Batetik, zerbitzuaren funtzionarioen kosteak (Koldo Azkoitia eta Rakel Garcia (jardunaldi osoan) eta Naiara Aranburu (jardunaldi erdiz)), eta bestetik, zerbitzuaren koste orokorrak (eraikinen mantenua eta konponketa, argindarra, ura, zaborrak, komunikazioak, dietak, publikazioak, e.a.). Horretaz gain, "Garapen Elkartearen" kuotak eta autoenpleguaren sustapenerako programak jasotzen dira. 2014rako politiko baten jardunaldi erdiko liberazioa ere kontuan hartzen da. Guztira 211.741,26 euroko gastua aurreikusten da.

##### Sarrerak

EEZren lokalen erabileragatik tasak, Lanbideko eskaeren kudeaketa, GFAko txekin programa eta eskualdeen arteko mahaiaren programetatik 43.625,-euro jasoko dira eta udalen ekarpena (biztanleen arabera) 168.116,26,- eurotakoa izango da.

#### **LANBIDE ORIENTAZIOA**

##### Gastuak

Langabetuei zuzendutako lan orientazio eta enplegu zentroko zerbitzua da. Horretan behin behineko hiru funtzionarioen kosteak jasotzen dira (Agurtzane Arregi eta Zuriñe Galartza (jardunaldi osoan) eta Naiara Aranburu (jardunaldi erdiz). Lanbideren beste deialdi bat ez dagoen bitartean, zerbitzua maiatzaren bukaera arte emango da. Guztira, aurreikusitako kostea 45.626,- eurotakoa da.

##### Sarrerak

Lanbidetik jasotako diru-laguntzarekin finantzatzen dira zerbitzu honetako gastu guztiak, beraz ez dago udalen ekarpenik.

## **EKINTZAILEEN SUSTAPENERAKO PROGRAMA**

### **Gastuak**

2013an Lanbidek egindako deialdi baten barnean kokatzen dugu programa hau. Ekintzaileak diren edo izatea nahi dutenentzako zuzendua dago programa. Lanbidek ekintzaile horien dedikazioa diruz laguntzen du Mankomunitateari emandako diru-laguntza baten bitartez. Guztira 19.500,- eurotako diru-laguntza bideratzen da. Mankomunitateak, bere teknikarien bitartez, aholkularitza profesionala eta prestakuntza ematen die aipatutako ekintzaileei.

### **Sarrerak**

Lanbidetik jasotako diru-laguntzarekin finantzatzen dira ekintzaileei emandako diru-laguntzak, beraz ez dago udalen ekarpenik.

## **ENPLEGU PLANEKO KONTRATAZIO LABORALAK**

### **Gastuak**

2013an Lanbidek egindako deialdi baten barnean kokatzen da programa hau. Eskualdeko udalek enplegua sustatzeko aldi baterako 32 kontratu laboral egingo dituzte. Kontratu horien kostea finantzatzeko 307.110,39 euroko diru-laguntza bat emango dio Lanbidek Mankomunitateari eta honek aipatutako kontratuen kosteak estaltzeko transferentziak egingo dizkie udal ezberdinei.

### **Sarrerak**

Lanbidetik jasotako diru-laguntzarekin finantzatzen dira proposaturiko kontratazioak beraz ez dago udalen ekarpenik. Dena den, udalek egindako kontratuen kosteek Lanbidek emandako diru-laguntzak gainditzen badituzte, gainontzeko kostu horiek udal bakoitzak finantzatu beharko ditu.

## **IKASIZ GOIAZ**

### **Gastuak**

Gipuzkoako Foru Aldundiak "Ikasten duen Lurraldea" 2013ko deialdiaren barruan egindako eskaerari erantzuten dio programa honek. Horrela, Mankomunitateak eta Goiaz Foroa osatzen duten Lanbide Heziketako ikastetxeen artean Goiaz! Lanbide Heziketari buruzko azoka eta beste ekintza batzuk burutuko dituzte 2014. urtean 14.501,- euroko kostearekin.

### **Sarrerak**

Foru Aldunditik jasotako diru-laguntzarekin finantzatzen da "Ikasiz Goiaz" programa, beraz ez dago udalen ekarpenik.

## **PROIEKTU ESTRATEGIKOAK**

### Gastuak

2013an Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako deialdi bati erantzuten dio programa honek. Eskualdeko ekonomia sustatzeko, dibertsifikatzeko, nazioartekotzeko eta langabetuen prestakuntza hobetzeko zenbait ekimen proposatzen dira, guztira 140.000,- euroko aurrekontuarekin.

### Sarrerak

Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu hauek burutzeko 105.000,- euroko diru-laguntza emango du eta beraz, udalen ekarpena (biztanleen arabera) 35.000,- eurotako izango da.

## **DEBAGOIENA ERALDATZEN**

### Gastuak

2013an Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako deialdi bati erantzuten dio programa honek. Debagoieneko Mankomunitateak eskualdeko beste eragile batzuekin batera (Saiolan, Bagara, MIK, Miguel Altuna Institutua) Debagoieneko eraldaketa soziala eta ekonomiko-enpresariala bultzatzeko 7 proiektu ezberdinak burutu behar dituzte. Guztira, aurreikusten den kostea 337.268,43,- eurokoa izango da. Proiektuen kudeaketa eramateko behin behineko funtzionario bat kontratatzea aurreikusten da.

### Sarrerak

Gipuzkoako Foru Aldundiak Debagoiena Eraldatzen proiektua 301.069,08 eurokin lagunduko du eta beraz, udalen ekarpena (biztanleen arabera) 21.724,12,- eurotako izango da.

## **LANBIDE HASTAPENA**

### Gastuak

Atal honen barruan "Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa" eta "Eskolatze Osagarria" garatzen dira. 2014rako aurrekontua 400.529,87 eurotako da. Guztira 59 gazte aritzen dira programa ezberdinetan. Programen kudeaketa Arizmendi Ikastolak egiten du 2010. urtean sinatutako kontratu baten arabera.

### Sarrerak

Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ematen dituen diru-laguntzak aurten ere murrizketak jasan dituzte, guztira 319.746,44 eurotakoak izango dira. Ondorioz udalen ekarpenak handituko dira eta guztira 80.783,43 eurotakoak izango dira. Ekarpenen erdia biztanleen arabera egingo dira eta beste erdia programetara bidalitako ikasleen arabera.

## **VALORA PROGRAMA**

### **Gastuak**

2008 eta 2015 urteen artean burutzen ari den programa da. Programaren helburua enpresa txiki eta ertainei zerbitzuak ematea da. Besteak beste, Debagoieneko enpresen gida, kudeaketa diagnostikoak, arlo ezberdinetako prestakuntza, buletin informatiboak, jardunaldiak, lehiakortasun diagnosiak eta antzeko ekimenak burutzen dira programaren barnean. Gastuen % 50a Europako Gizarte Funtsak finantzatzen ditu, gainontzekoa udalen ekarpenekin finantzatzen da. 2014rako 106.586,23,- euroko aurrekontua onartu da. Programa kudeatzeko behin behineko funtzionarioa kontratatuta dago egun osoz (Unai Kortabarria)

### **Sarrerak**

Aurreko urteetan udalen ekarpenak handiagoak izan direnez, aurten 21.622,- eurotakoak izango dira. Aurrekontua finantzatzeko gainontzeko 84.964,23 eurotako kopurua EGFitik etorriko da.

## **TURISMOA**

### **Gastuak**

Turismoko atalean Arantzazuko eskualde turismo bulegoa kudeatzeaz gain zenbait ekimen bideratzen dira, besteak beste; Ignaziotar Lurralde, Gipuzkoa Zein Berdea, Kalitate turistikoa, Mundumira jaialdia, Teknologi berrien egitaraua, Jardunaldi Gastronomikoak, Artzaien Lantaldea, Jatetxeen Lantaldea, Alojamentuen Lantaldea, Txakolin Lantaldea, e.a. 2014rako aurrekontua 309.619,55 eurotako da. Zerbitzu honetan hiru funtzionario egiten dute lana jardunaldi osoz (Ana Heriz, Leire Parra eta Inés Cáceres)

### **Sarrerak**

Jaurlaritzatik, Foru Aldunditik eta beste erakunde batzuetatik jasotako diru-laguntzak 143.900,- eurotakoak izango dira, beraz udalen ekarpenak (biztanleen arabera) 165.719,55 eurotakoak izango dira.